

Doñana arrisku larrian dagoela ohartarazi dute zientzialariek



Laguna del Moral urmaelaren bilakera. Gaur egun, eremu lehorretako landarediak hartu du lehen urez beteta zegoen gunea.
ARG.: EBD-CSIC.

Doñanako Estazio Biologikoak argitaratu duen azken ikerketaren arabera, Doñanako urmael-sistemaren % 59,2 galdu da 1985-2018 urteen artean. Neurri batean, euri-gabeziaren eta tenperaturaren igoeraren ondorioz desagertu dira urmaelak, baina frogatu dute giza jarduerak ere eragin zuzena izan duela: landaketak, eraikuntza, golf-zelaia, ur-erauzketak...

Datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten: Doñana egoera kritikoan dago. Horren adierazgarri, udan lehortzen ez ziren hiru urmael handi bakarrak jada ez dira iraunkorrak; adibidez, El Sopotón eta La Dulce orain sarri lehortzen dira. Handiena ere, Santa Olalla, egoera kritikoan dago 2012tik.

Urmaelen bilakaerari jarraipena egiteko, Landsat sateliteak hartutako 442 irudi aztertu dituzte,

eta animalietan eta landareetan bilakaera horrek dituen ondorioak ere ikertu dituzte. Esate baterako, ikusi dute anfibioen dibertsitatea ia erdira jaitsi dela 2003tik 2021era: kilometro karratuko 4,3 espeziekoa izatetik, 2,5ekoa izatera igaro da. Bestalde, Iberiar penintsulako bi galapago-espezie autoktonoak (biak ere Europako espezie mehatxatuen zerrenda gorrian daude) egoera kezagarrian daude, baita sorgin-orratzak eta txitxi-burruntziak ere. Arrainak eta aingirak ere hiltzen ari dira. Eta landare akuatikoko batzuk ere desagertzeko arriskuan daude.

Bestelako habitatei ere nabaritzen zaie ur falta. Babestutako eremuaren barruan, ehunka urte dituzten artelatzen %8,3 hil dira 2010etik, eta % 10 oso gaizki daude. ●